

30
Urte!


MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

284 - 2020ko urria



HANDITZEN
HANDITZEN...



POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

**Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala**

948513056
699179437

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

**MAITE
HARATEGIA**

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

**BERTAKO
HARAGIA**

*Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako
platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere
eskeintzen dizugu.*

Antigua kalea 7
31890 BETELU

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hermadorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Labrit, Ricardo Bosch, J.A. Garai-koetxea, Idoia Igoa, Guillermo Olmo, Marcos Vilela, Jone Gabari, Ander Elizalde, Joseba Satrustegi, Bernar Azpiroz, Beñat Pellejero, Ainhoa Beraza, Larraungo Udala eta Juanjo Zubieta.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Araitz Amatria.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

04

KUXKUXEAN Urriko zorion agurrak.

08

ELKARRIZKETA



"El fin".

12

IZAN GAZTE Eskalada.

14

BATZARRE Aldaketak Araxes Mankomunitatean.

18

ERREPORTAJEA



Mailopek 30 urte.

22

KULTURA Araizko Zaporeen VI. Feria.

25

KIROLA Larraungo Itzulia.

31

AGENDA





Aratz Etxarri Zubeldia
Irailaren 23an, 4 urte.
Muxu handi bat etxekoan partez.



Jone Castrillo Cruz
Urriaren 23an, 12 urte.
*Zorionak Jone!
Besarkada haundi bat zuretzako Atallutik*



Luar eta Laida Vicente Alkorta
Urriaren 25ean, Luarrek 10 urte beteko ditu eta 31n Laidak 13 urte.
*Zorionak bioi etxekoan partetik eta segi beti bezain jator, polittak!!
Muxu handi bana!!*



Irati Goikoetxea Aldaregia
Urriaren 13an, 6 urte.
*Zorionak Irati!!!
Ongi pasa zure egunean. Muxu handi bat etxeko guztion partez!!!*

Urko Agirrezabala Valencia
Urriaren 8an, 4 urte.
*Zorionak Urko Rock&Roll!!!
Segi bizkor eta jator!!
Muxutxoak!!
Joar, Ekia, aita eta ama.*



Arane eta Izadi Astiz Arangoa

Arane urriaren 17an, 5 urte beteko ditu eta Izadik irailaren 25ean, urte bat bete zuen.
*Zorionak POLITTEK!!!
Muxu handi-haundi eta goxo asko!!!
Malen, aita eta amaren partez!*



Ibai eta Lander Eraso Gorrotxategi
Ibaiek irailaren 22an, 9 urte beteko ditu eta Landerrek azaroaren 21ean, 11 urte.
*Zorionak bikote! Asko gozatu zuen eguna eta muxu erraldoi bana etxekoan partez.
Muuuak!!!*

Gari eta Aiara Arraztio Estanga
Urriaren 3an, Garik 4 urte beteko ditu eta urriaren 27an, Aiarak 7 urte.
Zorionak eta muxu handi bana etxeko guztien partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



MARATOIAK BERTAN BEHERA

Irailako hirugarren asteburuan egitekoea zen Plazalako V. Maratoia eta XIV. Maratoi Erdia bertan behera utzi zituen antolakuntzak. Gaur egungo osasun egoerak eraman ditu hein batean erabaki hori hartzera. Horrez gain, Nafarroako Gobernua jakinarazi du Leitzako bitunel egokitzeko lanei ekinen diola. Hala ere, nahi izanez gero, norberak bere bizitokian proba egiteko aukera eskainiko da martxan jarriko den APP baten bitartez.



ERRALDOI ETA KILIKIAK AK AURKI KALEAN

Irailaren 12an zen egitekoea, Larraungo Erraldoi eta Kilikien Konpartsako pertsonaien aurkezpena Lekunberrin, baina egun batzuk lehenago Konpartsako kide diren hainbat gurasori eragin zien Covid kasu positibo bat dela eta urriaren 3ra atzeratzea erabaki zuten. Aurki, Malloa, Larraun, Larrain eta Napar erraldoiak gure kaleetan ikusiko ditugu beraz, Elutxa, Gaztaundi eta Errementaria kilikiekin batera.



NAFARROAKO ARDOAREN EGUNA

Lekunberrin ere aurten Pilarika Jaiak ospatu gabe geldituko dira eta Lekunberriko Udaletik herri-tarrei egun horietan arduraz jokatzeke eskatzen diete. Hala ere, urtero jaiekin batera ospatu ohi den Nafarroako Ardoaren Eguna eutsi diote. Urriaren 18an, zazpi upategi nafarren ardoa dastatzeko aukera izanen da.

► Julio Soto (Gorriti)



Zer iruditzen zaizu egungo bizitza: dena dela legea, araua, baldintza, erabat profanatu da 'bizitza' hitza, nik aukeran nahiago dut beste *bizitza*.

Baina ez da bakarrik debekuen traba, guk kendu dugu gure ahotik algara, gurea da kultura gabeko udara, antolatu gabeko ekintzen ilara, bai, guk atera dugu beldurra plazara.

Datorren hilean bertsotan jarriko dugu.... Santos Argiñarena

HAINBESTE ORDU DENON ZERBITZURA

Araxes Garaiko Mankomunitatearen azken bilera esan nuen, baina orain Mailoperen bitartez ere denontzat esatea erabaki dut. Politikak eta politikan gabiltzanon onarpena hain baxu dagoen garai hauetan ongi iruditu zait gure bailaran denontzat, hutsaren truke, bi pertsona hauek egin duten lanaren aitortza egitea. Agian ez zaie beraiei ere ongi irudituko hemen irakurtzen dutena, eta beste askori ere ez, baina uste nuen esan behar nuela, ez baikara denok berdinak, eta hau duen zentzu zabalenean uler dadila.

Alde batetik, Mikel Rekaldek Beteluko Udalean jarraitzen du, baina Araxes Garaiko Mankomunitatearen lehendakaritza utzi du. Seguruenik gauza asko egin zitezkeen egin direna baino hobeto eta asko dira oraindik mankomunitateak aurretik dituen erronkak, baina aitortu beharra dago gure ibarrean zaborren kudeaketak ez duela zerikusirik orain dela hogeitau urteko egoerarekin eta kontrakoa dionak ez du ezagutzen benetako egoera. Eta guzti honetan Mikelek zerikusi handia izan du. Ezin dira zenbait eman dituen orduak, zenbait eman duen, berak nik baino hobeto jakingo du, baina badakit izugarria izan dela. Egia da oraindik asko dagoela egiteko, baina inondik inora ere ez da zerotik hasiko Mankomunitatean hasi den zuzendaritza berria.

Bestetik, Lazaro Goikoetxeak, Arribe-Atalluko kontzejuko lehendakari izateari utzi berri dio. Kontzejuan egin den lana ez dut zehaztasunez ezagutzen eta seguruenik, gauza asko hobeto egin zitezkeen, eta zaborrekin bezala, ez naiz galduko eztabaida antzuetan, hau eta hura modu batera edo bestera egin balira eta abar. Eginez probatzen da zer den hau eta egiten dituen bakarrik okertzen da, egiten ez duena ez da inoiz okertzen.

Hala ere, badakit zenbateko ahalegina egin duen. Kontaezinak izan dira inbertitu dituen orduak, berak eta bere ingurukoek jakingo dute zenbait eman duen, baina badakit ikaragarria izan dela, eta askotan, hemen esaten den bezala, esker txarraren truke. Kontzejuan, Argien Mankomunitatean, Udalean egon den urte luze hauetan herritar guztion mesedetan, bai, herritar guztion mesedetan, duen guztia eman du.

Esana geratu da.

Andoni Tolosa

EPAITEGIEK ARRAZOIA EMAN DIGUTE: ERTZILA PARTZUEGOAK HODITERIA ALDATZEKO EGIN ZUEN KONTRATAZIOA EGOKIA IZAN DA

2018. urtean, Iribasko Iturburu ur tratamendu plantarekin lotzen duen hoditeriaren obra zuzendaritza esleitu genuen Ertzila Partzuergotik; 20.000 eurokoa izan zen kontratazioa. Lehiaketa prozesuan bi ingeniari enpresa aurkeztu ziren, Eunate S.L y Zuazo S.L, eta azken horrek lortu zuen puntuazio handiena. Honako erakunde hauek parte hartu zuten kontratazio prozeduran: Ertzila Partzuergoko 5 kontzejuetako ordezkariak (Iribas, Alli, Mugiro, Etxarri eta Arruitz), Lekunberriko Udaleko ordezkaria, Larraungo Udaleko ordezkaria, Nafarroako Gobernuordezkaria, Larraungo Udaleko arkitektoa eta Lekunberriko Udaleko arkitektoa.

Eunate enpresa ez zen ados gelditu, eta epaitegietara eraman zuen Ertzila Ur Partzuergoa. Honako argudio hauek erabili zituen: gardentasuna eta objektibotasuna urratzea; Lekunberriko Udaleko arkitektoaren iritzi teknikoa kontuan ez hartzea; kontratazio mahaiko hainbat kide justifikaziorik gabe ordezkatzeari; eta zorrotasunik eta ezagutza gabe baloratu izana, azpi parametro batzuk ezarri gainera. Horrekin batera, Lekunberriko Udaleko arkitekto izandakoak argudiatu zuen Eunate S.L. enpresak puntuazio handiagoa lortu zuela kontratazio prozesu horretan.

Argudio horien aurrean, Ertzila Partzuergoak bereak aurkeztu zituen. Laburbilduz hauek izango liriteke: balorazio partziala eta justifikatu izan zela, lana gardentasunez eta objektiboki egin zela, egindako ordezkapenetan ez zegoela akatsik eta irizpideak pleguan agertzen zirela.

Irailean jaso dugu epaitegietatik emaitza, eta nabarmendu beharra dago atzera bota dituela Eunate SL-ren argudio guztiak, eta ontzat eman du Ertzilan egin genuen kontratazio prozedura. Ertzila Partzuergoko lehendakari eta Iribasko alkate gisa, azpimarratu nahi dut, epaitegiek berretsi duten bezala, gauzak ongi egin direla, eta gure nahia argi egon dela prozedura honen hasieratik: hoditeria aldatzeko lanak behar bezala egitea, berme guztiekin, gaur egungo hoditeria zaharkitua dagoelako eta arazoak eta ur galerak sortzen dizkiolako Ertzila Ur Partzuergoari.

Camino Garralda



SOS ARALAR PROIEKTUA

Idatzi labur honekin, Nafarroako Mendi Federazioko kide diren guztiei, SOS Aralar proiektuaren berri eman nahi diegu. Nafarroako Aralarko San Migel santutegia zaharberritzea helburu duen proiektua da, bertan interpretazio zentroa, kofradiaren egoitza soziala, liburutegi historikoa eta ekitaldi aretoa sortzeko.

Gainera, guztiok dakizuen bezala, Aralarko San Migel mendiko tradizio handia du, Done Jakue Bidea edo Ignaziotar Bidea bezain esanguratsuak diren ibilbide kultural eta historiko asko eta askoren igarobidea eta bidegurutzua baita.

"Aralar mendizaleen paradisia da". José María Jimeno Jurio idazlearen baieztapen hori astero errealitate bilakatzen da. Ehunka eta ehunka baitira senideekin, lagunartean edo lankideekin, mendilerroko eremu ezberdinetara txangoak eta ibilbideak egiten dituzten mendizale eta naturazaleak.

San Migel santutegia, Aralar mendiko gailurren artean kokatua, Uharte Arakilen, mila urtetik gorako historia duen santutegia da, Artxueta mendiaren gailurrarekin batera. Bertatik panoramika ikusgarriaz goza daiteke.

Santutegiko atea beti zabalik daude mendizaleak eta bisitariak hartzeko, historiak eta kondairak, artez eta debozioz betetako paraje eder eta mendi tradizio handiko leku honetara iristen den oro, zerbaitegatik diote "San Migel mendizaleon zaindari dela".

Eraikinari dagokionez, arkitektura erromanikoaren altxorra da eta zaharberritzen ez bada, behera etortzeko arriskuan aurkitzen da. Baina proiektuaren inbertsio ekonomiko handia dela eta ahalik eta ekarpen gehien behar ditu.

Proiektuaren aurrekontua

Proiektatutako aurrekontua, guztira, 550.000 eurokoa da. Partida garrantzitsu bat (100.000 euro) Iruñeko artzapezpikutegiak hartuko du bere gain, beste bat zati handi bat funts propioekin (60.000 euro) eta 50.000 euroko maileguarekin ordainduko da. Baina proiektua aurrera ateratzeko behar den gainerako dirua, ekarpenen, dohaintzen, mezenasgoaren eta crowdfoun-



ding-aren bitartez lortu nahi da.

Dohaintzak sosaralar.org helbidearen bidez eta kontu korronte honen bidez egin daitezke:

ES57 3008 0045 9942 3618 2913.

Eskerrik asko aldeaz aurretik zuen ekarpen eta dohaintzengatik!!

SOS Aralar

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7 - baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

BIDEGOXO



JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

“Abenturazko eleberria idazteko elementu guztiak eskaini dizkit Larraunek”

Jaiotzez argentinarra bada ere urte eta erdi inguru darama Marcos Vilelak Lekunberrin bizitzen. Aurkitzen garen osasun krisi honen erdian kaleratu berri du bere lehen eleberria, “El fin”. Larraunen, muturrera eramandako egoera apokaliptiko batean, girotako abenturazko trilogia baten lehen eleberria.

Marcos, kaleratzen duzun lehen liburua duzu honakoa...

Bai. Aurrez film labur, ipuin eta argitalpen asko kaleratu izan ditut bestelako bitartekoen bidez, baina hau da atera dudan nire lehen nobela.

Zure ofizioak ere badu nolabaiteko lotura horrekin guztiarekin, ezta?

Ez dut inoiz idazletzat izan neure burua. Idazle gisa lan asko egin izan ditudan arren, Baga Biga txotxongilo konpainia bat dut eta txotxongilolaria naiz.

Hitz egin dezagun liburuaz... Etxealdian sortzen den liburu batez ari gara?

Ez. Eleberriaren azpian dagoen etxealdiaren gai hori kointzidentzia baino ez da izan. Zonbiei buruzko eleberri apokaliptiko bat idazteko ametsa izan du beti. Oro har literatura sakona eta pedante xamarra gustatu arren, salbuespena egiten

“Eleberria Lekunberrin bizi den familia baten ihesaldiarekin hasten da”

dut zonbiei buruzko film eta no-belekin. Txarrak izanda ere irakurri egiten ditut. Eta etxealdian bizitako apokalipsi simulakro horren erdian pentsatu nuen: “Eta zonbiak aterako banitu?”. Bizitzen ari garen egoera hau ez da munduaren amaiera, oinarrian osasun krisi bat baino ez da, baina apokalipsia izan zitekeela pentsatzera eraman gintuen. Eta azkenean idatzi nahi nuen nobela idatzi dut, baina zonbirik gabe eta birus baten presentziarekin, nahiz eta eleberrian zehar ez duen protagonismo handirik.

Baina aurrez zenuen ideia bat zen...

Bai, istorioaren ideia uste dut nire koadernoetako batean nuela jaso, eta bizitako egoera horrek testuingurua aldatzeko ideia baino ez zidan eman.

Liburua gaur irakurritz gero, bizitzen ari garen errealitateak sortzen dizkigun zenbait sententziorekin identifikatuta sentiarazten zaitu, ezta?

Noski! Eleberria Lekunberrin bizi den familia baten ihesaldiarekin hasten da. Guk bizi izan dugun etxealdi bat bizitzen ari dira, baina muturreko egoera batean eta, jende asko hiltzen ari da. Horregatik familiak erabakitzen du gaizki pasa behar badute gutxienez ez dadila apartamentu txiki batean izan eta alde egiten dute mendi aldera. Leku horretara iristea dute helburu eta tartean introspektio eta gogoeta momentuak nahasten diren arren, abenturazko nobela bat da.



Gizonezko eta emakumezko batek osatzen dute bikotea, zortzi urteko alaba bat dute eta bigarren haurra noiz jaioko zain daude. Nor da protagonista?

Aita da protagonista eta berak darara pisu handiena, baina eleberria hirugarren pertsonan dago idatzita. Egia da karga psikologiko aitaren gain erortzen dela, baina akzioen protagonista familia da eta baita handik eta hemendik sartzen diren pertsonaia horiek ere. Bera ez da akzioen gaineko erabakiak hartzeko gai, ez du inoiz gertatzen denaren kontrola bere eskuetan.

Larraunen girotutako eleberri bat da. Zergatik? Zer eskaintzen dizu bailarak halako eleberri bat idazteko?

Lekunberri eta Baraibar aipatzen dira, zenbait ezaugarri faltsutuak izan diren arren, noski. Baita Baraibarko usategiak ere, bertan bizi dituzten momentu esanguratsuenak. Ikuspuntu literariotik eta fikzioa idazteko dena eskaintzen zidan. Larraun (Lekunberriekin batera) esan dezakegu hamazazpi herrik osatzen duten mikrokosmos bat dela. Eleberria idazten nuen bitartean Larraungo mapa nuen paretan zintzilikatuta. "El señor de los anillos" idaztea bezala izan da, baina mundu bat sortzeko beharrik gabe. Gusatzen zitzaidan bertako basoek duten sakontasuna, euria... Istorioa perfektuki osatzeko elementu guztiak eskaintzen zizkidan. Eta bestalde, maila pertsonalean, uste dut ez dela erraza jaiotzez bertakoa ez zaren lekuan integratzea, are gutxiago halako identitate handiko leku batean. Baina eleberria hemen kokatzeak pertsonalki "hemengoago" sentitzen lagundu didala uste dut.



Larraungo zenbait baso eta herritan dago girotuta. Arg.: Labrit.

Erabili dituzun pertsonaia ereduak bertako edonoren profila bete dezakete...

Bai, ez dut lanik hartu profil arrotzak sortzen. Konparaketak ezin izaten dira saihestu halakoetan eta, galdetu izan didate ea nire familia irudikatu duda pertsona horiengan, baina ez. Ez da nire alter egoa, baina egia da familia eredu hori eroso zitzaidala eta gutxi gorabehera nik hemen dudaren eredu dela.

Españolez idatzia izan den arren, euskarazko hainbat hitz eta kontzeptu erabili dituzu... Bertako irakurleei gertukoa eginen zaiela uste duzu?

Hori da asmoa! Inguruko norbaitek irakurtzen duenean arrotza ez izatea espero dut. Hala ere, inguru menditsu batean gertatzen den istorio bat da, beraz izan zitekeen ere Kanadako baso batean gertatua.

Abentura eleberria dela diozu, baina misteriotik ere badu zerbait...

Esaerak dio idazle batek ez duela sekula idatzi nahi zuen nobela idazten. Nik abenturazko nobela bat idatzi nahi nuen. Stevenson mires-

Eskura ezazu
"El fin: En el camino de Baraibar"
eleberria Amazonen :



“Uste dut nobela entretenigarri bat dela eta bukatutakoan irakurleak ez duela sentituko denbora galdu duenik”

ten dut. Hori zen nire asmoa, baina egia da tentsio handiko nobela bat gelditu zaidala, momentu batzuetan itogarria, baina gustatzen zait. Pozik nago emaitzarekin. Ez da eleberri apokaliptikoa, testuingurua hala den arren. Birusaren eta lainoaren artean, naturarekin harreman horren estuan bizitzera ohituta ez dauden zenbait pertsonen istorioa da eta euren kontrolpetik kanpo dauden egoerei egin beharko diete aurre. Abentura horretan sartuko dira!

Trilogia bateko lehen lana izan arren, “El fin” jarri diozu izena. Zergatik?

Bai. Hitz hori hainbatetan errepikatzen da eleberrian zehar. Titulu sinplea da eta gainera, hiru liburuak horri buruzkoak dira, munduaren amaierari nola aurre egin. Korona-

birusak zoritxarrez, egoera dramatikoa ekarri dituen arren, ez gaude apokalipsiaren aurrean inondik inora ere. Baina gizakia beti egon da apokalipsi gosez. Horren adierazgarri dira erlijioak, denak mintzatzen dira horren inguruan. Eta Koronabirusa gure bizitzetara iritsi zenetik momentu batean edo bestean eta emozionalki bada ere denok sentitu dugu apokalipsia bizitzen ari ginela. Eta itsusia eta gogorra bezain erakargarri zaigu.

Zonbiak aipatu ditugu hasieran, baina ez dezala inork pentsa zonbiei buruzko eleberri friki bat denik...

Ez. Ohiko irakurle bati dago zuzendua. Ez ditu zertan abenturazko eleberria gustuko izan. Uste dut nobela entretenigarri bat dela eta behintzat bukatutakoan irakurleak ez duela sentituko denbora galdu duenik. Hori lortu dudala uste dut.

Trilogia baten lehena da... Noizko izanen dugu bigarrena?

Bidean daude. Bigarrena udaberrirako kaleratzea gustatuko litzaidake, baina ikusiko dugu.

Momentuz goza dezagun lehenengo honetaz. Non eskura daiteke?

Oraingoz Amazonen dago eskuragarri formatu digitalean nahiz fisikoan. Egoerak uzten digunean tertulia interesgarriren bat antolatzea gustatuko litzaidake, bertan liburuak aurkezteko eta liburuak herritarrei modu zuzenagoan eskaini ahal izateko.



Abenturazko nobela bat izan arren, tentsio handiko eleberria da. Arg.: Arantxa.

IORTIA EL INCA ESTETIKO HORTZ-ESTETIKA

Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 - 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra



EMAN IZENA!

www.euskaraldia.eus



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

Eskalada

Imanol Amundarain

Bada denbora bat, zuloan, (ni Atallukoa izanik, bada, Araitz-Betelun) eskalada horma bat muntatzea dabilkida; herriari naturaz, mendiaz eta munduaz gozatzeko era hau gerturatzeko. Eta helburu berarekin idazten ditut honako lerro hauek.

Behin edo behin, egin izan dut helburu honekin hasteko saiakera antzuren bat: garai batean Beteluko Indiano Etxean eta gero, Lekunberrin zegoen hormari buruz galdetuz, batekin eta bestearekin mintzatuz... baina fundamentu handirik gabe. Oraingoan berriz, zuzenean jendearengana jotzea otu zait gaiari buruz interesa sortu eta proiektua era bate-

ra edo bestera (herritik edo udaletxetik) gauzatzeko. Aipatu ere, Beteluko eskolan herri borondatez eta maitasunez eginiko haurrentzako hormatxo bat badela; bertan txikienek lehen urratsak egiteko. Ideia, herrian eskaladarako gune bat sortzea litzateke, publiko guztiek (hasi-berri, haur, heldu, eskalatzaile...) lekua eta jarduna izan dezaketena.

Nik dakidala, zenbaitek futbolari, pilotari edo saskibaloijokari izan nahi dutela esan ohi dute umetan. Ez ordea eskalatzaile. Zergatik bada? Ez dutelako ezagutzen; ezezagun dena desiratzea, edo probatzen ez dena gustatzea zaila dela deritzot. Eta ho-

rren ondorio da Maillopean futbolari zein pilotari ugari, baina eskalatzailerik ez egotea.

Neroni Gipuzkoa aldean hasi nintzen honetan, duela 6 urte; eta egun, nire debora, gogo eta sasoi guztia pasio bihurtu zaidan aktibitate honi eskaintzen diot. Orduz geroztik, ha maika izan dira eginiko bidai eta eskaladak; ezaguturiko jende zein lekuak. Ia astebururo Pirinioetara eginiko irteerak aipatu nitzake, Alpeetara negu zein udan eginikoak, Madagaskarreko granito beltzeko hormetako abenturak, Yosemiteko trakeskeriak, Patagoniako orratz eta eskalada gogor eta ahaztezinak, etxe-





tik gertu Balerdiko horman zintzilik pasatako egunak... Baina eskaladak ematen diguna ulertzeko lerro hauek eta pare bat argazki ez dira aski.

Bestalde, aipatu nahi dut, hormak ez duela genero bereizketarik egiten; hau da, jolas ordu zein herriko plazetan ohikoegiak diren egoerak (mutikoak pilotan zein futboleak eta neskatok alboan kontutan) aldatzeko bidean ere, herrian, kirol konbentzionalak baina askoz inklusiboagoak diren guneak sortzea interesgarria dela deritzot.

Eskalada, inklusiboa, anitza, osa-

suntsua, naturala eta ederra da. Berezi ederra. Berdin dio, izotz eskalada, harroka eskalada, eskalada alpino, kirol eskalada edo blokea; hamaika dira modalitateak, baina edozertarako ere: hastapenerako, entrenatzeko eta elkarbanatzeko gune bat sortzea oso interesgarria litzatekeelakoan nago.

Gure inguruan horma paregabe ugari ditugu eta betidanik izan da Euskal Herrian mendiarekiko eta eskaladarekiko harreman estua.

Eutsi diezaiogun horri, eutsi diezaiogun Euskal Harriari!



Lagunasesoría S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



OKM
ABOKATUAK
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alii. Tfnoa: 609 130 555



▶ LEHENDAKARI ALDAKETA ARAXES GARAICO MANKOMUNITATEAN

Araxes Garaiko Mankomunitatean hamabost urtez lanean eman eta gero, lehendakaritza utziko du Mikel Rekaldek. Arribe-Atalluko Kontzejuko lehendakaria den Joxe Mari Amundarainek hartuko dio erreleboa orain.



▶ IREKITA DAGO ERRAZKINDIK BELUTARAKO BIDE TRADIZIONALA

Errazkindik Belutara doan artzain bide tradizionala berreskuratu da Iturraskarriko kideen lanari eta errazkindarrek egindako auzolanari esker. Bidea garbitzeaz gainera, bertan daude bi iturri ere garbitu dira eta Belutan behatoki bat egokitu da lekuak eskaintzen duen panoramikaz gozatzeko. Bide hori zeharkatzen duen garai bateko belar-kableetako bat bertan da oraindik. Hori behar bezala jarri eta gainerako seinalizazioekin batera, bertan informazio taula bat jartzea da asmoa.

ALTERNATIBAK EZAGUTZEARI EKIN DIOTE LARRAUNEN

Irailean eman zion hasiera Larraungo Udalak "Larraun Ura eta Lurra" proiektuari. Herriak bizirik irauteko eredu alternatiboei buruzko mahainguru. Bestalde, Larraun ibaia garbitzeko auzolana egin zen eta iraileko azken larunbatean, Arrea elkartearen eskutik, nekazaritza ekologikoak eskaintzen dituen alternatiben inguruko tailerra izan zen. Ikusi urriko egitaraua Agedan (31. orr.)





▶ MALKORRA BERRESKURATZEN...

Lekunberriko Udalaren eskariz, Iturraskarriko kideek Malkorrera igotzeko eskailerak berritu eta ingurua garbitzen ibili dira azken bi hilabeteetan. Inguru guztia garbitzeaz gainera, urtetan oreinak egon diren zatia ere berreskuratu egin da. Bigarren fase batean, bertan gatzelu edo defentsarako gotorlekua egon zen zantzuak egiaztatzeko ikerketei ekitea da asmoa. Baina dagoeneko, bertan dugun espazio natural eder horretaz gozatzeko aukera dugu.



▶ ERRELEBO FALTA ETA BATEZBESTEKO ADIN ALTUA ARAIZKO LEHEN SEKTOREAN

Joan den hilean, Araizko ekoizpenaren eta lur bankuaren ikerketaren ondorioak aurkeztu zituzten jendaurrean. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ramo Barrenak nabarmendu zuen besteak beste, 60,26koa dela esplotazioen titulartasuna dutenen batezbesteko adina, %84k euren ekoizpena tratante edo bitartekarien bidez saltzen dutela horrek eskaintzen dien balio erantsi baxuarekin. Horrez gain, %42k ez du erreleborik esplotazioarekin jarraitzeko. Hala ere %40k datozen hamar urtetan lanean jarraitzeko asmoa du.

Aurrerantzean aurrerapausoak emateko datu zehatzak izanen ditu esku artean Araizko Udalak.

EMAN IZENA AEK EUSKALTEGIAN!

Ikasturtea hastear da Larraungo AEK euskaltegian eta dagoeneko euskarazko taldeetan izen emateko epea zabalik dago. Euskaraz hutsetik ikasten hasi nahi duzu? Hitz egiteko gaitasuna herdoilduta daukazu edo besterik gabe, gehiago ikasi nahi duzu? Eman izena Larraungo AEK euskaltegian: 948604704 / larraun@aek.eus.



Gutuna

2020ko Urria. Nire gordelekutik.

Ez dakit zer gertatuko den. Ez dakit nork edo noiz irakurriko duen. Ez dakit noizbait irakurriko den. Ez dakit bihar edo atzo irakurtzen ariko zaren. Ez dakit idatzi dudan. Baina hor doazkizu hitz hauek, gutun moduan.

Nire bizitzako hogeita bosgarrena urte hau, urte berezia izan da, garai berri baten hasiera. Mundua aldatu duen urtea, mundutarrak aldatu dituen urtea. Gizakiaren benetako izatea "azaleratu" duen urtea.

Ez nautela ikusi antzezten dute, ez ditudala ikusi antzezten dut. Zelatana daude gortinaren beste aldetik, akatsa noiz egingo ote dudan zain. Epaia noiz botatzeko aukera izango ote zain. Arrazoi bila, arrazoimena galduta. Lehen oheko izarak ziren babes, munstro eta amets gaiztoen aurrean gotorleku, orain gortina horiek ere arresi bihurtu dira, arrotzaren etxea.

Itsu-itsu baina begiak prest.

Zarata, hotsa, beti izan dira azkarragoak, ikusterako aditzen dute, badakite zer ari zaren, badakite non zauden, zurrumurrua eta burrunba entzun dituzte. Badakite zer egingo duzun.

Ez dakitela ezer esango dute, ez dutela ezer entzun, gorak dira eta mutu daude, baina mihia dantzan eta belarriak tente.

Txikia nintzenez, ez nituen ulertzen halakoak. Ume bat bakarrik da, ez daki zertaz ari garen. Baina nik adi neuzkan zentzumenak. Orduan sentitutakoa orain ulertzen ikasi dut. Orain ulertu dut handitzea, zahar-



tzea zer diren, denborak nolako pisua duen. Orain ulertutakoak ordea, iraganeko kontuak dira, historia liburutako ardatz. Ez dute garrantzirik. Kontu berriak ditugu gaur. Tamalez handiegia naiz oraingo zenbait kontu ulertzeko, mundua zerk mugitzen duen ulertzeko zaharregi bilakatu naiz.

Nire sentipenak ez dira garrantzitsuak. Ez dira inoiz izan. Ezer ez da inoiz nahikoa ona, beti hobea izan zaitezke. Beraiek beti izango baitira zu baina hobek. Ezer ez da inoiz nahiko txarra, beti okerragoa izan daiteke, beti izango dira zu baino okerrago daudenak eta ez daukazu eskubiderik kexatzeko.

Baina zeurea izango da errua, zeurea bakarrik. Itsu, mutu eta gorgeratzea erabaki duzulako, munduaren benetako pandemian, birus bilakatu zarelako. Zu munduan bizi zarelako eta ez duzulako mundua bizi.

Ez zara berezia, hori pentsatzeak

ez zaitu berezi egiten, ez behintzat nahikoa berezia. Bereziatasuna zer den ez duzu zuk aukeratuko. Berezi egingo zaituzte, miresgarri, liluragarri. Edo zomorro egingo zaituzte, erlauntzean bat gehiago. Ez bilatu bereziatasuna, ez jarraitu biderik edo trikimailurik. Sortu. Sortu zaitze eta maitatu zure sorkuntza.

Ene gizaki maitea, mina egingo dizute, askotan, asko. Inoiz ez gehiegi, inoiz ez gehiegitan. Ez dago sendagairik. Denborak lurperatuko du mina.

Baina ez dira beraiek zure etsaiak. Beraiek ere bizitzen ikasten ari dira, beraiek ere mina sentitzen dute. Hauskorrak gara. Ulertu mesedez.

Gizakiaren sena, benetako izatea, azaleratuko da. Baina ez da inoiz putzua lehortuko eta beti izango da lokatz gehiago, egiak sakonean jarraituko duen bitartean. Egin korronteen aurka. Egin igeri lokatzetan.



luze

Leire Aranburu

Beldurra eta bizitza, kontrajarriak

Azken hilabeteotan, birus bat eta honek sortzen omen duen gaixotasuna gehienon buruan dago ia eten-gabe. Gaixotasun honekin etor daitezkeen minak eta, ondorioz, gerta daitezkeen heriotza, bat batean, berri nagusi bihurtu dituzte hedabideek. Zerbait berri balitz bezala ari dira zabaltzen eta horrela, izua sortu dute. Baina, nola aurkitu honi inolako zentzurik? Inkoherentzia ugari, logika falta, kontraesan etengabeak eta, baita, oinarri zientifikoaren eza ere, ikusten ditut nonahi.

Baina badu, nire ustetan, antzematen zaila den zentzu ezkutua. Izan ere, izakiok geure bizitzen zentroa egiten omen dugu sufrimendua, maisu nagusi askoren ustetan. Eta sufrimendu hau guk geuk sortutakoa da hein handi batean. Budismoak horrela adierazten du bere lau egia nagusietan. Batetik, sufrimendua existitu eta unibertsala da. Bestetik, sufrimendu honek baditu bere sustraiak. Hurrengoak, sufrimenduaren sustraiak jakin ahal dira. Eta azkenik, behin sustrai hauek ezagututa, sufrimendua gaindi daiteke. Baina, Gurdjieff maisuaren hitzetan, gizakiok uzteko prest gauden azkena sufrimendua da, hau da, behin eta berriz, modu batera edo bestera, sufritzeko bideak hartzen ditugu. Bide hauetako bat heriotzaren ukatzea da. Geure gizarte modernoan, heriotza ezkututzen, ekiditen, urruntzen saiatzen gara. Baina, lehenago edo beranduago, guzti guztiok hil egingo gara.

Behin bazen mutil gazte bat herri txiki batean. Ama hilzorian zuen



eta mutikoa, oso triste, etxe ondoko hondartza luzera jaitsi zen ibiltzera. Itsasertzetik zebilela, beregana segadun figura iluna ikusi zuen etortzen. Bazetorren heriotza amaren bila. Mutikoarekin egin zuen topo heriotzak eta galde egin zion ea non bizi zen halako emakumea. Mutikoak etxea urrun zegoela adierazi zion baina prest zegoela segaduna laguntzen bertara iristen. Heriotza nekatuta zetorren eta eskertu zuen eskaintza. Mutikoak orduan, poltsikoan zeraman ontzia atera zuen, tapa ireki eta proposatu zion heriotzari bertan sartzea, horrela, bat ere nekerik gabe eramango omen zuen segaduna andrearengana. Heriotzak baietz esan eta ontzian sartu zen. Tapa itxi zuen mutikoak eta pozik itzuli zen etxera, segaduna preso baitzeukan. Etxeratzean ama

umore onez eta gosetuta aurkitu zuen. Mutikoak ez zion ezer kontatu eta oilaskoa hiltzera joan zen amarentzat salda ederra egiteko. Baina, oilaskoak hiltzen ohituta bazegoen ere, ez zuen inolaz ere bat hiltzea lortu. Saiatu zen orduan, arrantzan egiten etxe ondoko errekan. Eta ezer ere ez. Baratzetik, patata edo barazkiak ateratzen saiatu zen baina hau ere ezin. Ama goseak zegoen, mutikoa gosetuta ere. Herrian, guztiok berdin. Gose, umore txarrez, ezin ulertu zer gertatzen zitzairen. Horrela pasa ziren egunak, desesperazioa gero eta handiagoa zen, ahul sentitzen ziren, haserre munduarekin. Hura ez zen bizitza. Mutikoak, orduan, ulertu zuen zer ari zen gertatzen. Amarengana hurbildu zen, ikusi zuen nola ari zen sufritzen alperrik. Bere ustetan, heriotza amarengandik urruntzea ama maitatzea zen baina ulertu zuen aurkakoa ari zela egiten. Oso norberekoa ari zen izaten, amaren bizitza eta sufrimendua luzatzen. Maitasun handiz, amari azken muxua eman, eta ireki zuen ontzia heriotzak bere lana egin zezan. Izan ere, mutikoa beldurrez ari zen jokatzen amaren heriotza ekidin nahian.

Eta beldurra, maitasunaren aurkakoa da. Beldurra errotuta dago geure baitan, geure gizartean eta honek izugarritzko sufrimendua sortzen du geure bihotzetan. Beldurrez bizi bagara, ezin maitasunean bizi. Maitasun osoaren bidea da sufrimendutik ateratzen gaituen bakarra, osasuntsu mantentzen gaituena.



Berrikuntzekin bete du Mailope Aldizkariak bere 30. urteurrena

Bagoaz pixkanaka aurrera... udazken honetan zenbaki borobila dugu, 30. Hiru hamarkada bete dira Mailope Aldizkaria sortu zenetik.

Araitz eta Betelun lehenik eta eskualde osoan ondotik, euskararen erabilera sustatzeko eta harremanak sendotzeko helburu nagusiarekin sortutako proiektuaren hasierako urte haietako ibilbideaz maiz hitz egin izan dugu, beraz urteurren honetan atzera baino aurrera begiratu nahiko genuke.

Beste hainbeste urtetan aldizkariari eustea eta hobetzen joatea da Mailopeko lan-taldeko kideen asmoa. Eta horretan, lagunduko di-

guten bidelagunak eta ideia berriak beti dira ongi etorriak eta gure kasuan, beharrezkoak. Horregatik, ale honen hasieran postontzi bat jarri dugu zuen eskura. Postontzi horren bitartez zuen ideiak, proposamenak eta eskaerak jaso nahiko genituzke. Mailope herri guztietara iristen den moduan, herri guztietako iturrietatik edanda ahalik eta informazio anitzena eskaintzea dugulako helburu.

Bestalde, ikasturte berri honenkin batera bazkidetza kanpaina jarri


dugu martxan. "Etxe bat, bazkide bat". Nortasunez bezain sendoa litzatekeelako ekonomikoki ere eskualdeko etxe bakoitzeko bazkide bat bagenu. Horregatik bazkide egitera animatzen zaituztegu. Urtean 50 euroko kuota ordainduta Mailopeko bazkide izanen zara. Hori da urteurren honekin batera, geure buruari jarritako erronka: "Etxeko bakoitzeko, bazkide bat". Horrekin aski litzateke hein handi batean etorkizun oparo hori bermatzeko.

Eta aurrera egiteaz ari garela... oraingoan ere ezin genituen ahaztu gure proiektuarekin batera jaiotako horiek. 90. urtean jaiotakoekin hainbat azal bete ditugu dagoeneko gure urteurren borobiletan. Mailope, gure herriek eta herritarrek egindako ibilbidearen isla da. Oraingoan ohi baino banatuago eta euri azpian harrapatu ditugu 90eko kintakoak: Julen Elordi, Nerea Hernandorena, Gari Huici, Asier Elizalde, Unai Otermin eta Julen Balenciaga. Aurten Beñat Bildarraz eta Ladis Galarza falta! Lasai... etorriko dira urteurren gehiago eta!

30. urteurrena berrikuntzekin dator gurean. Aurpegi berriak ditugu joan den hilabetean berritu zen Mailopeko Zuzendaritza Talde berrian. Beñat Pellejerok hartuko du azken urtetan Agurtzane Altunaren eskutan zegoen lehendakaritza eta berarekin batera osatuko dute taldea, Ander Elizalde (lehendakariordea), Bernar Azpirotzek (diru-zaina), Ainhoa Beraza (idazkaria), Joseba Satrustegi (bokala), eta Arantxa Mikeok (bokala).



Kontzilioari buruzko 60 elkarrizketatan ateratako informazioan oinarritu da besteak beste Rocío Ochoa bere tesian. Arg.: Labrit.



Beñat, nola sentitzen zara lehendakartzaren ardura hartu izanarekin?

Beñat: Hasieran beldur pixka batekin, esperientzia berria delako niretzat, baina ilusioa ere badut!

Zein erronka dituzue datozen urteetarako?

Beñat: Erronka handietako bat bazkideza gehiago lortzea izanen da. Bazkide izan edo ez, beti iristen zaigu aldizkaria etxera eta agian horregatik ez diogu behar bezainbeste garrantzia ematen bazkidezari. Zertarako eginen naiz bazkide etxean bestela ere berdin-berdin jasotzen badut? Kontzientzia sozialagatik edo bertakoa izateagatik harago joan beharko genuke, halako proiektu batek eskaintzen diguna balioan jarri beharko genuke.

Ander: Horregatik etxe bakoitzeko bazkide bat izatea lortu nahiko genuke.

Beñat: Nik uste ez dela asko eskatzea. Denok oso gustura irakurtzen dugula iruditzen zait eta ez da esfortzu ekonomiko handia eta keinu polita da aldizkariari bultzada emateko. Arantxa: Era berean, datozen urteetan bazkideak bereziki zaindu nahiko genituzke. Bazkideen artean eginen diren zozketa eta eskaintzen bitartez. Ezinbestekoa delako urteroko kuota horren bitartez emandako laguntza hori eskertzea.

Ander: Eta ea zuzendaritza berriarekin ideia berriak eta bixitasun pixka bat ematen diogun! Umetan argaz-

kiak baino ez genituen begiratzen, ondoren irakurtzen hasten zara eta interesa pizten zaizu. Baina umetan bezainbeste ilusio egiten dit oraindik ere Mailope etxera iristen denean eman ohi diodan lehen begiratu horrek. Hori ez da galtzen!

Bernar, zuk Luis Urbizuri hartu diozu diru-zainaren lekukoa. Nolatan animatu zara?

Bernar: Nik Mailopeko ia ale guztiak gordetzen ditut. Hasierako urte haietan proiektu honen bueltan ibili ginen bileretan parte hartuz eta niretzako garai hartan egindako ahalegin hori berreskuratzea izan da. Zenbait urtez beste lehentasun batzuk izan ditut eta orain denbora libre gehiago dudan honetan parte hartzeko go-goarekin. Beti izan dut halako proiektuekiko interesa.

Ainhoa, zuk idazkari jarraituko duzu. Buruhauste handiak ematen al dizkizu Mailopek?

Ainhoa: Ez da izaten berebiziko premia duen arloa, baina diru-laguntzak eta diru kontuak tartean direnean beti izaten da buruhaustea. Hori izaten da kezka handiena, diru-laguntzen menpe ibiltzen baikara. Gainerakoan, eramangarria da!

Esker bereziak horrenbeste urtez, momentu onetan eta batez ere txarretan, Mailopeko Zuzendaritza Taldean lanean ibili diren kideei: Agurtzane Altuna, Andoni Tolosa eta Urko Aristi. Eskerrik asko!!

Eta zuk irakurtzen al duzu Mailope aldizkaria?



Andoitz Estanga (Intza, 13 urte)
Ander Garmendia (Betelu, 13 urte)
Aitzol Zubillaga (Betelu, 13 urte)

Mailope irakurtzen al duzue?

Andoitz: Bai!

Ander: Elkarrizketak batez ere.

Andoitz: Eta urtebetetzeen atala.

Aitzol: Eta festetako argazkiak.

Eta zer ez zaizue gustatzen?

Aitzol: Niri ez zaizkit gustatzen oso luzeak diren artikuluak. Txapa hutsak direnak!

Eskolan erabiltzen duzue?

Ander: Batzuetan bai.

Andoitz: Joan den urtean elkarrizketa bat irakurri genuen klasean.

Aitzol: Eta datorren alean kaleratzeko albiste bat idatzi dugu gaur.



Lorea Eraso (Arribe, 18 urte)
Izan Zubillaga (Atallu, 18 urte)
Idoia Garmendia (Betelu, 18 urte)

Zein da Mailoperi buruz duzuen iritzia?

Izan: Positiboa. Beti etxean egon den aldizkari bat da eta betidanik irakurri izan duguna.

Idoia: Nik gogoan dut batez ere umetan noiz iritsiko zain egoten ginela. Eta ilusio handia egiten zigula lagunak edo zu zeu azaltzen zinean.

Lorea: Urtebetetzeen atala ere begiratzen ibiltzen ginen. Umetatik erakari izan dit niri.

Idoia: Niri elkarrizketa gustatzen zaizkit. Beti irakurtzen duzu ezagutzen ez zenuen norbait edo herritar batek egiten duen gauza bat edo bestea.

Izan: Bitxikeria asko ezagutzeko balio du eta baita larraundarrak ezagutzeko ere.

Lorea: Bai. Askotan Larraunera joaten zarenean, norbait ikusi eta agian ez duzu ezagutzen, baina Mailoperi esker badakizu zerbait berari buruz.



Jone Gabari (Lekunberri-AEK euskaltegiko irakaslea)

Euskaltegian erabiltzen al duzue aldizkaria?

Bai, asko. B1 mailatik gorako ikasleekin erabili ohi dut. Normalean bertako gaietarako buruzko artikuluak aukeratu eta beraiekin lantzen ditut. Bertako gaiak eta bertako jendea azaltzen denez interesgarria iruditzen zaie. Horrela eskualdeko gaiak eta euskara lantzen ditugu aldi berean.



Karina Bachilieri (Lekunberri)

Zein ekarpen eskaintzen dizu Mailopek?

Nik dudan arazoa da ez dakidala euskaraz. Askoz gehiago eskainiko lidake urtean behin edo tarteka artikuluren bat erdaraz kaleratuko bazenute, askotan beste inon kaleratzen ez den informazioa eskaintzen delako.

Eta zein atal da zuen etxean irakurriena?

Mailope beti dago presente gure etxean. Nire alabari urtebetetzeen atala ikustea gustatzen zaio eta agenda eta jaietako egitarauak ere oso erabilgarriak dira guretzat. Gainera, nire bikotea informatikaria da eta aldizkariaren bitartez iragartzeko ere erabiltzen du.



KIROLA, ARDURAZ
KIROLA, SEGURTASUNEZ

**#GAUR
BAI**

KIROLA, GAUR BAI
OSASUNA, GAUR BAI



Instituto Navarro del Deporte
Nafarroako Kirolaren Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

ARAITZ



Araizko Zaporeen VI. Feria izanen da urriaren 25ean

Datorren urriaren 25ean, igandea, Araizko Zaporeen VI. Feria egingen da Arribeko plazan (Txarra eginez gero, Atalluko pilotalekuan). Aurten, Covid-19ak sortutako egoera dela eta azokaz azoka dabilzan artisau asko ia plazak zapaldu gabe gelditu dira. Horiei babesa emate aldera, aurten Araizko Zaporeak taldeko kideek bertako feriarra gonbidatu dituzte Mendialdeko artisauak. Beraz, aurten ibarrekoak ez ezik, bertan ez ditugun produktuak eskaintzen dituzten artisauak ere gurekin izanen ditugu. Bestalde, sagarrondo txertaketa egiten ikasteko tailer bat ere eskainiko da, Beintza-Labaiengo Zubialde Patxakak enpresatik etorriko den Juan Gamioaren eskutik. Landareak hazkunde tamaina egokia erdiesten duenean ekoizpenaren zati bat txertaketarako erabili daiteke. Horregatik, teknika interesgarria izan liteke gurean ere bertakoak ditugun sagarrondo basatiak irauarazteko.

Aurten ere sagar-postre lehiaketa izanen dugu. Iaz, Adur Cobosek eraman zuen saria. Sagarrekin egindako postrea eguerdiko hamabiak baino lehen aurkeztu beharko da Arribeko plazan. Irabazleak bi lagunentzako afari ederra jasoko du.

Egitaraua:

- 10:30 Postuen irekiera
- 11:00 Gazta egiteko tailerra.
- 11:30-13:00 Sagarrondo txertaketaren ikastaroa.
- 12:00 Zaldi gainean ibiltzeko saioa.
- 13:30 Sagar-postre lehiaketako sari banaketa eta bailarako produktuez osatutako saskiaren banaketa.
- 15:00 Bertako produktuez osaturiko bazkaria Arribeko San Miguel Jate-txean (Txartelak alde aurretik erosi behar dira).

LARRAUN

Eta urrian, Printzan...

Printzako lagunak urrian zehar segida emanen diote hainbat jardueri. Gune autogestionatua egokitzeko eta apaintzeko auzolanak egingen dituzte egitura hobetzen joateko. Bestalde, eraikinaren atzean dagoen baratza lantzen jarraitzen dute. Bertatik ateratako uzta baratzean aritzen diren artean eta Printzako kideen artean banatzeaz gainera bertako elikagaiak Elikagai Bankuko loteetan banatzen dituzte. Formakuntza tailerrak ere eskaintzen dira Printzan. Joan den hilean eman zioten hasiera elektrizitatearekin lotutako oinarriko formakuntzari eta urriaren 16an bigarren saio bat emanen dute.

Egitaraua:

- 8 (16:00) Auzolana.
- 13 (17:00) Baratza.
- 16 (19:00) Tailerra: Photoshop. Iru-dien ediziorako programa ikastaroa.
- 25 (18:00) Asanblada irekia.
- 27 (17:00) Baratza.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU bar

ETXOKO PIZZAK,
KOPA, BERGIZAK

948504352

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldiro eskaintza bereziak



CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

LEKUNBERRI



Babes neurri zorrotzekin ospatu da aurten Nafarroako Sagardo Eguna

Nafarroako Sagardo Eguna ospatu zen joan den hilean Lekunberrin. Herriko plazan egin beharrean, antolatzaileek Lekunberriko frontoiaren aurreko plazara eraman zuten ekitaldia. Bertan, Lekunberriko Toki-Alai eta Berueteko Behetxenek Bordako sagardogileez gainera, Lizartza eta Usurbildik etorritako beste bi ekoizle ere izan ziren. Eguraldi ederrak lagunduta, asko izan ziren bertara hurbildu zirenak. 600 lagun pasa ziren bertatik goizean zehar. Antolatzaileek beharrezko neurriak hartu behar izan zituzten jende pilaketak ekidin eta egungo osasun egoerak eskatzen dituen neurri bereziak betearazteko. Horregatik sartu eta irteten zen jende kopurua kontrolatzeaz gainera, sarreran tenperatu eta datuak hartzen ibili ziren. Joseba Ordoki (Lekunberriko Zinegotzia): "Sagardogileei eta artisauei gure babesa eskaini nahi genien eta ez genuen ekitaldi hau ere bertan behera utzi nahi. Gure esku zeuden neurri guztiak hartu genituen eta izugarrizko arrakasta izan zuen. Ekarritako sagardo botila guztiak hustu ziren. Gainera, bertan jarri ditugun egurrezko etxolak estreinatu genituen etorri ziren artisauekin".

ZARATE

Urteurren eta omenaldi ugari Azken Muga

Kultur ekitaldi ugari izan dira irailean zehar Zaraten. Beste urte batez, Azken Muga ekimeneko antolatzaileek bertako nahiz nazioarteko artistak elkartu dituzte. Aurten Jose Luis Zumeta omendu zuten. Berrogei artista inguruk mural bat egin zuten bere omenez eta beste zenbaitek Zumetaren "Gernika" lana margotu zuten. Baina horrez gain, beste bi urtemuga ere gogorarazi zituzten, *Et Incarnatus* musika taldeak Jose Mari Iparragirreren jaiotzaren 200. urteurrenarekin lotutako proiektua aurkeztu zuen eta *Ensemble Moxosek* Juan Sebastian Elkanok lehen aldiz munduari bira eman zionaren urtemuga ekarri zuen gogora. Guillermo Olmo (antolakuntzako kidea): "Osasun egoera dela eta urte berezia izaten ari da eta Azken Muga hau ere berezia izan da. Normalean uda osoan zehar antolatu ohi ditugu ekitaldiak eta aurten irailean baino ez egitea erabaki dugu. Hala ere, pozik gaude emaitzarekin. Kultur ekitaldi gehienak bertan behera gelditzen ari diren honetan, positiboa izan da kulturaren alde egitea".

ESKUALDEA

Zatoz gurekin euskaraz egitera!



Martxan da aurten ere Mintzakide programa. Izen emateko epea zabalik dago jada. Ikasturte hasierarekin batera aurtengo taldeak osatuko dira parte-hartzaileek dituzten zaletasun eta egoki zaien ordutegien arabera. Hala ere urte osoan talde horietara batzeko aukera izanen da.

Mintzakide taldeak astean ordu batez batzen dira mintzapraktika egiteko, eta parte hartzaileek batzeko tokia eta ordutegia aukeratzeko dute. Baina horretaz gain, badira zaletasunen inguruan elkartzeko direnak: mendilagunak, irakurzale kluba, gurasolagun taldeak, kantulagunak...

Larraunen ez ezik, Araitz eta Belun ere taldeak osatzeko saiakera egiten du aurten AEK-k. Animatu eta eman izena: Larraungo euskaltegien aurrez aurre, 607 62 21 02 mugikor zenbakira deituta edo online <https://labur.eus/eBXn6>



Hitz aspertuan



●● Agurtzane Altuna

Atzendu

Ezauera donetik beekin izan ditto. Beekin, beetzako, beegan izan do sortetxea: eskalle malle bakoitze, txoko, kurba, leiho airoso ta zoko ospel bakoitze. Gaur eztauke ezaueraik, ez to ezautzen. Gaur ez ta goatzen pasilloan beira abittu ta hiruarren atea denik bere koartokoa. Atzendu zazkio orduk, lanak eta otorduk; atzendu zaizkio pausoak ta zein deen bere zapatak; non dauzken jaietako jertseak, ta nola lotu atzetik aurea jirata sostenak.

Ximur tarteko bi argitxo bezalaxe, dir-dir polittean dauzke bere bi begik, baño galdue dauke beitture. Non ote daillen antzeman nahiean, ahaztea baño sakonagoa ez ote dan atzentzea galdetzen diot nere buruei. Ahaztu, ahaztu... denoi ahazten zaigu zerbatte, baño atzendu? Nola naizena atzendu?

Ahaztu zaio nola izena don, baino baaki zein den; o ez. Baietz esango nuke parra ttikie ateatzen zaio ta garai bateko argazkik pasatzen hasten geanean. Bere gaztetakoak, bodakoak, argie joan ta kandelakin apaldu giñun eguarri haitakok... Atzendu ditto haik denak o atzean gordeta dauzke? Igual bete zaio burue dena, ta atzea berriz hasieratik hasi da goatzen? Biziet osoa, izena eta izana atzentzen denean, betiko atzentzea, egitan?

Han atzean, atzendentako haitan eongoa nonbatt sorburue, aurreneko arnasa, izena eta izana. Han hartzen ote do babes, han deskantsu gaurkoa dena atzentzen don harrek? Ta dauken apurre atzean baldin badauke, itzuleraik bareko bire bat ote da ba ezauerana? Atzetik aureako bireik ez ta?

Beitture galduekin daon momentutxo hoitako batean jarri naiz bere parean erantzun bille, eten diot beitturei birea, estutu diot eskue, eta beak nerea; parra ttiki-ttikiet atea zaigu bioi batea.

"Ez takit non zauden baño mattetzea ez zaizo atzendu". Ez, mattetzea ez zaio atzendu. Atzo izandu ginen azkenezkoz. Laztan bat ezkerreko masallean; laztan bat ezkerreko behatz bakoitze errepatatuz ta bere beitture sarkorra ta paramurri goxoa soñean hartuta atea giñen sokalde epeletik... "Ez takit non zauden, baño gu mattetzea ez zaizo atzendu".



Larraungo Itzulia eginen dute Ttutturreko mendizaleek datozen hilabeteetan

Ttutturre Kirol Elkarteko mendizaleek ikasturte honetarako aurreikusita zizuten ateraldiak momentuz etetea erabaki dute eta horren ordez datozen hilabeteetan etxetik gertu ibiliko dira. Larraungo Itzulia eginen dute bost etapatan zatituta. Guztira 70 kilometro baino gehiagoko ibilbidea prestatu dute. Larraungo herri batean hasi eta beste batean amaituko da etapa bakoitza. Joan den hilean egin zuten lehen etapa, Errazkinen hasi, handik Belutara eta Ttutturrera igo eta Albin amaituz. Urrian, Albi eta Madotz arteko etapa eginen dute Artxueta eta Ata zeharkatuz. Eta azaroan berriz, Madoztik Aldatzera joanen dira Larrazpil eta Beltzuntzetik barna. Irteerak beti bezala hileko azkeneko igandean izango dira eta kotxeetan antolatuko dira izen eman duten pertsona kopuruaren arabera. Larraungo Itzuliaren track osoa www.ttutturre.com atarian dago eskuragarri.

Gure ingurua ezagutzeko aukera ezin hobea duzue! Animatu eta eman izena: ttutturrekirolelkartea@gmail.com / 680 65 21 83 / 607 53 25 69.

Aizkolariak eta jardunaldi mikologikoa

Nafarroako lehen mailako aizkora kanporaketa jokatu da urriaren 4an, eguerdiko 12:00etan Lekunberriko frontoiko plazan. Gainera, jardunaldi mikologikoa antolatu da eta artisau azoka ere izanen da egun horretan herrian. Goiz osoan zehar onddo, ziza eta trufa erakusketa izanen da ikusgai. Horrez gain, herriko tabernetan onddoekin egindako pintxoak dastatzeko aukera izanen da.



Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

“Talde lanean ongi moldatzea izanen da gakoa”

Urriaren 10ean izanen da Beigorriko Taldekako I. Txapelketa. Beigorri Abentura Parkea iazko irailaren 21ean inauguratu zen egiturak berritu eta gero. Lorena Etxarri, bertako arduradunak azaldu digunaren arabera, lau taldeetan parte hartzeko txapelketa goizez izanen da eta adin guztietako pertsonen parte hartzeko aukera izanen dute.

Orain dela urtebete berrieki zenuen parkea. Zer moduz joan da lehen urte hau?

Bagoaz pixkanaka... Hasieran jende askok ez zekien irekita zegoenik ere eta gero etxealdiak harrapatu gintuen, beraz, kosta egin zaigu ezagutzera ematea. Uztailean ireki genuen berriro eta egia esan, udan nik espero baino jende gehiago etorri zaigu, baina kosta egiten da.

Hain zuzen ere, jendea animatzeko txapelketa bat antolatu duzue...

Hori da! Aurten taldeak lotzea zaila denez, jendea parkean ibiltzera gonbidatzeko beste formula bat da. Hasiera batean txapelketa jardunaldi ezberdinetan banatzea zen gure ideia baina azken momentuan jendea izen ematera animatu dela ikusita epea luzatzea erabaki dugu eta azkenean txapelketa jardunaldi bakarrean egingen da, urriaren 10ean.

Zein izanen da taldeek egin beharreko ariketa?

Sei urtetik gorako edonork parte har dezake. Izen emateak ixten ditugu-

“Bigarren buelta erlojupekoa izanen da eta arnes bakarra izanen dute lauentzat”

nean adin eta gaitasunaren arabera hainbat kategoriatan banatuko ditugu. Kategoriaren arabera, ibilbide bat egokituko zaie eta erreleboka aritu beharko dute talde bakoitzeko lau lagunek ibilbidea denek pasa arte.

Talde guztiak parkean elkartuko dira goizean...

Bai eta talde bakoitzak ibilbidea behin egiteko aukera izanen du entrenamendu moduan. Bigarren buelta erlojupekoa izanen da. Arnes bakarra izanen dute lauentzat. Beraz, batek amaitzen duenean, erantzi eta besteari pasa beharko dio. Erlojua, azken taldekiak arnesa bere lekuan uzten duenean geldituko da. Horrela egingen da talde guztiekin. Talde lanean ongi moldatzea izanen da gakoa. Taldekideari behetik lagundu eta animatzeaz gainera, arnesa jartzen ere lagundu beharko diote gainerakoek. Beti gure, segurtasun neurriak betez eta gure begiradapean.

Zer izanen da zailena?

Ondokoari irabaztea. [Kar, kar]. Ez dugu tirolinen zirkuitua jarriko, horrek ez duelako gaitasunik eskatzen. Altuerak sor dezakeen beldurrari aurre egin eta zubiak ahalik eta azkarren pasatzeko gaitasuna erakutsi beharko dute.

Sariak ere izanen dira, ezta?

Bai, Lekubonoak eta Oibarko Artamendia Abentura Parkerako sarrerak banatuko ditugu.

Noiz amaitzen da izen emateko epea?

Beharrezkoa da aurrez izen ematea, bai. Azken eguna urriaren 8a izanen



da, beigorri@izadiaventura.com edo 621 237 942 mugikor zenbakiaren bitartez. Parte hartu nahi dutenek lau taldekideen izenak eta adina zehaztu beharko dute. Eta txapelketaren egunean hamar euro ordaindu beharko du taldekide bakoitzak. Parte hartzeko gogoia izanez gero eta taldekideak falta bazaizkie, eman dezatela izena eta ondoren, taldeak moldatuko ditugu.

Pilarika jaien faltan, plan ona izan daiteke, ezta?

Bai! Animatu dadila jendea. Askok uste dute halako parkeak umeentzako direla edo familian etortzeko, baina adin guztietarako da.

Gaitasun asko lantzen dira zuhaitz gainean...

Parke hauek aisialdirako ez ezik oso aproposak izan daitezke kirol klubek entrenamendu alternatiboak egin ditzaten. Gaitasun ezberdin asko lantzen dira, oreka, kontzentrazioa.... Lurrean gaudenean ohartzen ez garen beste sentrazio asko izaten dira han goian. Gaur egun, psikologiarako ere erabili daiteke. Ekopsikologia deritzona lantzeko, hau da, naturatik lantzen den psikologia. Zubiak bestelako irakurketa bat eginez zeharkatu daitezke. Zuhaitz bakoitzean gogoeta bat landuz. Arlo askotako profesionalen elkarlanerako aukera eman dezakeela uste dut.



“Parke hauek oso aproposak izan daitezke kirol klubek entrenamendu alternatiboak egin ditzaten”



“Bideen eskumena komunagoa beharko luke izan”

Zein da zure egitekoa Kontzejuan?

Betebehar nagusia kontabilitatea eramatea da, kontuak behintzat mantentzea. Aurrekontu handirik ez dugu, diru-sarrerak gutxi izaten dira eta! Biztanle gutxi gara eta basoa ere gutxi du herriak. Pinudi bat atera zen orain dela hiru urte. Horrez gain, gaztainondo eta haritz zaharrak baditugu, baina horiek ezin dira bota.

Botatako pinu horiek saldu egin ziren?

Bai, dena saldu egin zen eta berriro landatu zen. Partikularrek euren basoak ateratzen dituztenean tasa bat kobratzen zaie eta hortik diru pixka bat ateratzen du Kontzejuak. Basoko langileek bidean sortzen dituzten kalteetarako fidantza jartzen dute eta horrekin moldatzen gara.

Bideak ongi uzten dira, beraz...

Bai, errespetatzen da eta bideak ongi gelditzen dira. Neguan eguraldi txarrarekin arituz gero kalteak handiagoak izaten dira. Orain dela lau urte hala tokatu zen, baina ondoren bideak behar bezala gelditu ziren. Bestalde, Tokiko Azpiegitura Planak eskaintzen duen diru-laguntzarekin aspaldian berri gabe zeuden ubi-

“Nor bait bizitzera etortzeko prest dagoela ikusiko bagenu martxan jarriko genuke etxebizitzaren proiektua”

deetan eta kanalizazioan inbertitu genuen orain dela bi urte. Beloki aldeko pistak egin ziren orduan eta ondoren Azkue aldekoak. Azkue inguruan aldapa handiko bide bat daukagu eta han brea bota genuen beste diru-laguntza bati esker.

Inbertsio gehienak bideak berri-zeko izaten dira?

Bai, laz, nekazaritzako azpiegiturarako diru-laguntza bat lortu genuen eta bi esplotazioetara doan bidea asfaltatu genuen. Gure gaztandegira eta Danboneko esne behien esplotaziora doana. %70eko diru-laguntza lortu genuen, herrian bertan dauden lanpostuak direla justifikatuta.

Zuenean ere auzolanak egiten dituzue, ezta?

Bai, urtean hiru auzolan egiten ditugu gutxienez. Normalean udaberrian, festak baino lehen eta udazkenean egiten dira. Herri inguruko bide baz-

terrak eta frontoi ingurua garbitzen dira. Normalean bizilagun bakoitzak bere etxe ingurua garbi mantendu ohi du, baina gainerako eremuak denon artean egiten ditugu.

Kontzejuak zein eraikin ditu bereak?

Herriko etxea, frontoiaren ondoan dagoena.

Eta zein erabilera ematen diozue?

Batzarrak egiteko erabiltzen dugu. Elkartea ez izan arren, elkarte modura atondutako lokal bat dugu bertan, eta tarteka herritarrok familiako bazkariak edo umeen meriendak egiteko erabiltzen ditugu.

Baina astebururo biltzeko ohiturarik ez duzue...

Ez, ez... Jende gutxi gaude!

Zenbat biztanle zarete gaur egun?

55 inguru. Tartean badira ume batzuk, hamabost urtetik azpikoak sei baino ez dira. Adinaren batezbestekoa nahiko altua da. Biztanle kopurua oso azkar ari da jaisten.

Eta etxe hutsak badira herrian?

Badaude bai. Badira hutsik dauden baserriak. Aurreproiektu bat egin





genuen orain dela zenbait urte herriko etxean etxebizitza bat egiteko eta alokairuan jartzeko asmoarekin. Aurreproiektua hori hor dago, baina gero ez genuen aurrera egin.

Ongi legoke familia gazte bat bizitzera etorriko balitz, ezta?

Bai. Norbait Uztegiara bizitzera etortzeko prest dagoela ikusiko bagenu martxan jarriko genuke. Herriko etxea mantendu egin behar da eta inolako diru sarrerarik ez badago karga bat da.

Eta datozen urteetarako zein asmo dituzue?

Hemen, jendearen kezka nagusia bideak izaten dira eta horiek mantentzea nahiko lan da guretzat. Eta horrez gain herriko etxeko etxebizitzaren proiektua aurrera aterako bagenu...

Zuek ere aurten festarik gabe gelditu zarete...

Ez ditugu izan ez. Udalak eta Tximuutxek antolatuta kantaldi bat eta bertso saio bat izan genituen udan, besterik ez!

Zer moduz eraman duzue etxealdia herrian?

Guk berdin-berdin jarraitu dugu lanean, baina hurrak etxean egon dira. Adineko jendearentzako izan da gogorrena. Lehen ere bakar antzean bizi zirenak etxealdiarekin bakardade handiagoa bizi izan dute eta edonora joateko beldur eta erreparatu handiagorekin. Senideen laguntzarekin moldatu dira.

Etorkizunari begira, nola dago lehen sektorea Uztegin?

Lehen sektoreaz bizi garenak gaude ez gara asko. Pare bat artalde koxkor ditugu, Danboneko esne behiak, okeletako behiak ere badira... Baina erretiratutako jende asko dago.

Eta herriko lurrak mantentzeko aski dira horiek?

Herriko terrenoak izugarri ari dira zikintzen. Zenbaitek garoa egiten dugu eta horrekin pixka bat mantentzen da toki onenetan, baina gainerakoa basoak hartuta dago. Nekazaritza Politika Komun delakoak urtero kentzen digu azalera.

Kontzejuak desagertu eta euren eskumena udalen esku uztearen aukera positiboa izango litzatekeela uste duzue?

Nik ez dakit formula onena zein den, baina uste dut bideen eskumena behintzat komunagoa beharko lukeela izan. Desberdintasun handiak sortzen dira herri batetik bestera. Populazio gehiago duten herrietan adibidez, zirkulazio zergaren bitartez diru sarrera handiagoak izaten dituzte, baina herri txikiek... Uztegi herri txikia da eta diru sarrera gutxi ditu, baina bideetan metro dezente dauka. Azkarate aldiz, adibide bat jartzearren, herria bera ez dago horren sakabanatuta eta bideak txukun dituzte eta hala ere dirua sobran! Poltsa komun bat izan beharko genukeela uste dut eta eskumen hori udalaren eskutan utzi. Horrela urte osoan etxe horietan bizi den jendeari bideak baldintza onean dituztela ziurtatu. Zenbait kontzejuri horretarako bitarteko ekonomikoak falta bazaizkigu lagundu egin beharko gintuzkete.

Gainera, geroz eta gehiago kostatzen da kontzejuak osatzea...

Inork ez du kontzejuaren ardura hartu nahi eta hori zerbaiten seinale da. Herri txiki hauetako batera familia berri bat etortzen bada, hori denontzako da positiboa. Eta horretarako bideak eta baldintza onak bermatu behar ditugu. Ematen du herri bakoitzak dituen arazoak bereak baino ez direla eta hori ez da horrela!

Zazpi urte ingurua daramatza Peio Goikoetxeak Uztegiako Kontzejuan. Herri txikia izanik ere, badira sakabanatutako etxeak eta, ondorioz, mantendu beharreko hainbat eta hainbat bide.

ETA ZUK ZEIN ROL HARTUKO DUZU EUSKARALDIAN?

AHOBIZI

“Euskaraz ulertzen duten guztiakin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidan lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elbidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean. Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea da.”

BELARRIPREST

“Nire gaitasun eta aukeren arabera erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiakin, baina euskara dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.”

Azaroaren 20tik abenduaren 4a izanen da Euskaraldiaren bigarren edizioa. Aurten izen emateak online egin behar dira: <https://izenematea.euskaraldia.eus/>

Animatu eta parte hartu Euskaraldian!



Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA
- HARATEGIA -

PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00

Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-jatetxea
Arribe
948 51 31 34

AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

urrutia
enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

ce consulting
empresarial
ANA RAMOS MARTÍN

GESTORIA
666 939 332
aramos@ceconsulting.es

panaderia okindegia
GALBURUeco
Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

AGENDA



URRIA

- 10** - Larraun Ura eta Lurra: txangoa **Iribasen** Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik. Hegaztien migrazioak, anillamendua.
- 16** - Larraun Ura eta Lurra: espeologia hitzaldia **Astitzen**. Aitzarrate-Lezegaldea.
- 18** - Nafarroako Ardoaren Eguna **Lekunberrin**.
- 21** - Gizonezkoen Espainiako Itzulia.
- 24** - Larraun Ura eta Lurra: hitzaldia **Errazkinen**. Gure artzaintza, denon ondare.
- 25** - Araizko Zaporeen VI. Feria **Arribeko** plazan (Eguraldi txarra eginez gero, **Atalluko** pilotalekuan).
- 25** - "Larraungo Itzulia" Ttutturreko mendizaleek antolatuta. 2. etapa: Albi-Artxueta - Ata - Madotz.

INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO, SARTU WEBGUNEETAN



Larraungo Udalaren
Facebook orrialdea:



Aranzadi Zientzia Elkartearen
web orrialdea:



Araizko Udalaren
web orrialdea:



31

MERKATU TXIKIA

LAN BILA

► Etxe / Landetxeen garbiketarako edota pertsonen zaintzarako lan bila dabilen emakumea. Interesik baduzu, nirekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 603 138 100.

SALGAI

► Ura berotzeko gasoliozko galdara salgai, 800 litroko deposituarekin. BAXIROCA-MOD-GAVINA 20 GTI SP. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646 870 837 (Bixente).

EROSTEKO

► Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

TAXILON

Lontxo
Otamendi
Artola

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com



Etxe bat



bazkide bat

EGIN ZAITEZ MAILOPEKO BAZKIDE
ETA ZUZENEAN BI HILABETERO
EGINEN DIREN ZOZKETETAN PARTE
HARTUKO DUZU!



MAILOPE

BAZKIDETZA EGITEKO BIDEAK:
MAILOPE@LABRIT.NET
638 652 339
[HTTPS://MAILOPE.EUS/BAZKIDETZA/](https://mailope.eus/bazkidetza/)